


Konposatu kimiko arruntenak

Lotu ondorengo formula kimikoak dagokion irudiarekin :



Ura disolbatzaile unibertsala da.
Izaki bizidun guztientzat likidorik garrantzitsuena da.



Ur oxigenatua zauriak garbitzeko eta desinfektatzeko erabiltzen da.
Zuritzaile gisa ere erabiltzen da.



Amoniakoa garbiketarako produktu askok eta askok daukate.
Ongarriak egiteko ere erabiltzen da.

OXIDO METALIKOAK: O-aren konposatu bitarrak + metala



Burdina metala hezetasunaren eraginez oxidatzen denean eratzen dira.

Burdina oxidoek herdoila sortzen dute: kolore gorrixka duen geruza bat da; metala jaten du, eta zulatu egin dezake.

OXIDO EZ-METALIKOAK: O-aren konposatu bitarrak + ez-metala



Karbono dioxidoa gasa da, eta arnasketan nahiz errekontzan sortzen da.


Karbono monoxidoa ere gasa da, eta toxikoa: asfixiaz hiltzea eragin dezake. Errekontzan sortzen da, oxigeno gutxi dagoenean.



Gas hauek petrolioaren deribatuak erretzen direnean sortzen dira.

Hiritan-eta atmosferan pilatzen direnean, herritarrei osasun-arazoak eragin diezazkieke, eta euri-azidoa ere bai.

GATZAK



Gatz arrunta janarekin gehien erabiltzen den ongailua da.



Kaltzio kloruroak hezetasuna xurgatzen du. Kaxetan-eta erabiltzen da.



Magnesio sulfatoa bainu-gatz gisa erabiltzen da.



Potasio nitratoa ongarri gisa erabiltzen da.



Amonio nitratoa fisioterapiari erabiltzen diren poltsa hotzetan aurkitu daiteke.



Kobre sulfatoa igerilekuak garbitzeko eta aboreak zenbait onddotatik babesteko erabiltzen da.



Marmola (kaltzio karbonatoa) eskultura, altzari eta eraikuntzan erabiltzen da. Azidoek hondatu egiten dute.



Igelsua (edo eskaiola) eskultura, eraikuntza eta medikuntzan erabiltzen da, nagusiki.


AZIDOAK: zaporez garratzak dira, eta gehienak, korrosiboak



Azido sulfurikoa mundu guztian gehien egiten den konposatua da.



Azido nitrikoa ongarriak eta lehergaiak egiteko erabiltzen da.



Azido klorhidrikoa oso korrosiboa da, marmola ere disolba dezake. Urin gastrikoetan daukagu.

BASEAK: ukitzean koipetsuak dira



Antiazido gisa erabiltzen dira. Bihotzerrea duenean hartzen du jendeak.



Soda eta potasa garbiketarako produktu askok dauzkate.